



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko uztailaren 1a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, LGTB kolektiboaren harrotasunaren nazioarteko eguna dela-eta. Eledunen Bartzarrak onetsia (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (3. or.).

—Uztaila eta abuztua gaitzeko erabakia (11. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, LGTB kolektiboaren harrotasunaren nazioarteko eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko ekainaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak lesbofobia, homofobia, transfobia, bifobia eta interfobiarik gabeko lurralde deklaratzeko du Nafarroako Foru Komunitatea.

2. Nafarroako Parlamentuak sexu-askapenaren bandera –ortzadarraren bandera– jarriko du ikus-teko moduko leku batean, heldu den ekainaren 28an LGTB kolektiboaren harrotasunaren nazioarteko eguna dela-eta.

3. Nafarroako Parlamentuak Berdintasunezko ezkontzaren legea onetsi izanaren 10. urteurrena

ospatu nahi du, zeina 2005ean onetsi baitzen Diputatuen Kongresuan.

4. Nafarroako Parlamentuak bere gain hartzen du ekimen politikoak abiarazteko konpromisoa, aurrera egite aldera sexu-joera eta genero-identitatea oinarri dituen diskriminazio eta bazterkeriarik gabeko gizarte aske baterantz.

5. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die beren sexu-izaera edo genero-identitatea dela-eta gutxietsiak edo mespretxatuak izan diren edo eraso egin zaien pertsona guztiei. Hala-ber, arbuiatu egiten du egiazko berdintasunaren aurka doan ekintza sozial eta politiko oro”

Iruñean, 2015eko ekainaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznarez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko ekainaren 26an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko ekainaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (4. or.).

- III. Nafarroako Kontseilua (4. or.).
 - III.1. Definizioa eta eginkizunak (4. or.).
 - III.2. Kideak (4. or.).
 - III.3. Araubide ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa (5. or.).
 - III.4. Langileak (5. or.).
 - III.5. Araubidea (5. or.).
 - III.6. Nafarroako Kontseiluaren jardura (6. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. Urteroko kontuak (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).

ERANSKINAK

- I. Finantzen egoera-orriak (7. or.).
- II. Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu-gastuaren bilakaera 2001-2014 epean (euro konstantetan) (10. or.).
- III. Nafarroako Kontseiluaren jardueraren bilakaera 2000-2014 aldian (10. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontuen Ganbera honek Nafarroako Kontseiluaren 2014ko kontuen erregulartasunaren fiskalizazioa egin du.

Fiskalizazio-lan hau Kontuen Ganberak 2015erako onetsitako jarduera-programan jaso zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin zuen 2015eko maiatzean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi ditugu Nafarroako Kontseiluko langileek lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honen xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea Nafarroako Kontseiluaren 2014ko kontuek zehaztasunez islatzen duten, alderdi esanguratsu guztietan, erakunde horren 2014ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta orokorrean onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu diren horiek.

- Ea 2014an, Nafarroako Kontseiluaren jarduerari aplikatzekoa zaion legedia bete den.

Lanaren aztergaia Nafarroako Kontseiluaren 2014ko kontuak izan dira. Kontu horiek honakoez osatuta daude: balantzea, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, emaitzen kontua, oroitidazkia, ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria eta eskudiru-fluxuen egoera-orria.

Lan hau egin da sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako printzipioei eta arauei jarraituz. Behar adina froga lortzeko eta aipatutako fiskalizazio-helburuak erdiesteko auditoriako proba eta teknika guztiak aplikatu dira.

III. NAFARROAKO KONTSEILUA

III.1. DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK

Nafarroako Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 28.ter artikulua definitzen duen bezala, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute egokitasun edo komenigarritasunari buruzko baloraziorik eduki.

Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izan behar du, bere objektibotasuna eta independentzia bermatuko badira. Berariazko eskumen-esparrua du eta Kontseilua osatzen duten kideek estatutu berezia dute.

III.2. KIDEAK

Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatutako zazpi kidek osatzen dute Kontseilua. Nafartasun politikoa eta ospe aitortua duten legelarien artean izendatzen dira: bost Nafarroako Parlamentuak proposatzen ditu, eta gainerako biak Nafarroako Gobernuak hautatzen ditu.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Kontseilukideek hautatzen dituzte lehendakaria eta idazkaria.

Nafarroako Kontseiluaren ordainsari-ereduak, Estatu Kontseiluarenak eta beste autonomia erkidego batzuetako kontseilu aholku-emaileenak ez bezala, ez du aintzat hartzen bere kideen profesionalizatzea, eta, hala, bertaratzeengatik dieten eta txosten eta irizpenetan txostengile gisa parte hartzeagatik ordainsarien bidez ordaintzen zaie.

III.3. ARAUBIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA AURREKONTUEI BURUZKOA

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua programa beregain gisa dago sarturik Nafarroako aurrekontu orokorretan.

Nafarroako Kontseiluak autonomia du bere gastuen egoera-orria prestatu eta betetzeko, aplikatzekoa zaion legediaren arabera, eta Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten oinarri eta xedapenen menpe dago. Bere aurrekontua eta kontuak beregainki aurkezten ditu, bere kontabilitatearekin, 2005ez gero.

Eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak izatea edota funtsen edo baloreen mugimenduak egitea dakarren Nafarroako Kontseiluaren ekintza, dokumentu eta espediente oro Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailtza Orokorraren kontrolaren mende dago.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria gastu eta diru-sarrera arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Nafarroako Kontseiluaren 2014. urterako aurrekontua 446.374 eurokoa da.

Betetze-maila ehuneko 61 izan da gastuetan; 273.305 euro, guztira. Langileria-gastuak ehuneko 46 dira, eta ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak, ehuneko 53.

Diru-sarrerak 369.677 eurokoak izan ziren, eta haien betetze-maila ehuneko 83koa. Diru-sarrera horien ehuneko 98,81 Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzia arruntak dira.

2014ko ekitaldiaren betetzearen emaitza gisa, superabit bat sortu zen, Foru Ogasunari itzuli beharreko 96.372 eurokoa.

III.4. LANGILEAK

Nafarroako Kontseiluaren 2014rako plantilla organikoak bi langile ditu, zeinak Nafarroako Gobernuko funtzionarioak baitira. Honako egoeran daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, behin-behineko kontratuarekin. 2014ko uztailan, idazkariak kargua utzi zuen, erretiroa hartuta, eta beste pertsona batek ordeztu zuen.

III.5. ARAUBIDEA

Nafarroako Kontseilua arau hauei loturik dago, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

Nafarroako Kontseilua sortu zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, zeina aldatu baitzuen abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak.

Otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamendua onesten duena, ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatu zutena.

Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzkoa.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa.

III.6. NAFARROAKO KONTSEILUAREN JARDUERA

2014an, Nafarroako Kontseiluak 46 irizpen-eskaera erregistratu zituen. Horietatik 16tan, espediente osatugabetzat jo zen eta dokumentazio osagarria eskatu zen. Gainera, bi espediente irizpena eman gabe geratu ziren, irizpena eskatutako agintariak erretiratzeko eskaturik, eta bi espediente itzuli zitzaizkion eskatutako agintaritzari, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamenduan agintzen diren baldintzetara egokitzen ez zirelako.

2014an zehar 39 irizpen eman zituen Nafarroako Kontseiluak. Horietatik lau 2013an egindako eskariei zegozkien, eta gainerako 35ak 2014. urtean zehar egindako kontsultei zegozkienak ziren. 2000n lanean hasi zenetik Kontseiluak izan duen jarduera txosten honen III. eranskinean jaso da. Guztira, 807 irizpen eman ditu.

Kontseiluak 2000-2014 epean emandako irizpen guztien ehuneko 45 legeak edo haiek aldatzeko proiektuak betetzeko erregelamenduen proiektuei buruzkoak dira (2014an, irizpen guztien ehuneko 51 dira).

Ondoren beste hauek datoz: 120.202 euro baino gehiagoko kalte-galerengatiko kalte-ordainen erreklamazioei buruzko irizpenak, ehuneko 13 guztira (2014an ehuneko 21), administrazio-egintzak ofizioz berraztertzeari buruzkoak, ehuneko 12 (2014an, ehuneko 8 izan ziren) eta alderdien artean Nafarroa duten lankidetzaz hitzarmen eta akordioei buruzkoak, ehuneko bederatzia (2014an ehuneko 5 izan ziren).

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa eta finantza-orriak aztertu ditugu. Kontseiluak aurkeztuak dira, eta txosten honetako I. eranskinean jasota daude. Halaber, II. eranskinean, Nafarroako Kontseiluaren gastuen aurrekontuaren likidazioak 2001-2014 epean izan duen bilakaera erakusten dugu.

Egindako azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

IV.1. URTEROKO KONTUAK

Gure ustez, Nafarroako Kontseiluko 2014ko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdi esanguratsu guztietan entitatearen ondarea, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa eta 2014ko abenduaren 31n zuen finantza-egoera, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzak ere, aplikatzekoa zaion informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari jarraikiz; bereziki, bertan jasotako kontabilitate printzipio eta arauak.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2014ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera gaur egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera izan da, oro har.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko maiatzaren 28an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

I. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

I.1. Aurrekontuaren likidazioa

Gastuen aurrekontuaren likidazioa

	(Eurotan)			
	Aurrekontua, hasierakoa	Aurrekontua, behin betikoa	Betebeharrak, aitortuak	Ordaindutakoa
1. Langile-gastuak	181.304	181.304	125.209	125.209
2. Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	240.070	240.070	143.732	143.732
6. Inbertsio errealak	25.000	25.000	4.364	4.364
Gastuak, guztira	446.374	446.374	273.305	273.305

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

	(Eurotan)			
	Aurrekontua, hasierakoa	Aurrekontua, behin betikoa	Eskubideak, aitortuak	Kobratua
4. Transferentzia arruntak	421.280	421.280	365.279	365.279
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	94	94	34	34
7. Kapital-transferentziak	25.000	25.000	4.364	2.107
Diru-sarrerak, guztira	446.374	446.374	369.677	367.420

Aurrekontu-emaiza

	(Eurotan)			
Kontzeptuak	Eskubide aitortu garbiak reconocidos netos	Betebehar aitortu garbiak reconocidas netas	Zenbatekoaren aldea importe	
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kap.)	369.677	273.305	96.372	
2. Finantza-aktiboen eragiketak (8. kap.)	0,00	0,00	0,00	
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	369.677	273.305	96.372	
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia	0,00	0,00	0,00	
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa (I+II)	369.677	273.305	96.372	
IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita			96.372	

I.2. Diruzaintza-gerakina

	(Eurotan)	
	Kontua	Zenbatekoa
+ I. Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak		2.257
Ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontukoak	430	2.257
- II. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak		5.475
Ekitaldiko aurrekontuko gastu-aurrekontukoak	400	0
Itxitako aurrekontuko gastu-aurrekontukoak	401	0
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	477	5.475
+ III. Ekitaldi amaierako funts likidoak	57	99.590
IV. Atxikitako diruzaintza-gerakina		0
V. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (I-II+III-IV)		96.372
Diruzaintzako gerakina, guztira (IV+V)		96.372

I.3. Egoera-balantzea

Aktiboa

(Zenbatekoak, eurotan)

Kontzeptua	2013	2014
Aktibo ez-arrunta	10.187	10.280
Ibilgetu materiala	10.187	10.280
Altzariak eta tresnak	4.757	3.745
Informazioa prozesatzeko tresneria	839	3.788
Bestelako ibilgetu materiala	4.591	2.746
Aktibo arrunta	120.598	101.847
Diruzaintza	120.598	99.590
Bankuak eta kreditu-erakundeak	120.598	99.590
Epe laburreko zordunak	-	2.257
Foru Ogasun Publikoa	-	2.257
Aktiboa, guztira	130.785	112.127

Pasiboa

(Zenbatekoak, eurotan)

Kontzeptua	2013	2014
Ondare garbia	123.970	106.652
Ondarea	10.187	10.280
Ekitaldiko emaitza	113.783	96.372
Epe laburreko hartzekodunak	6.815	5.475
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	567	-
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	6.248	5.475
Pasiboa, guztira	130.785	112.127

I.4. Emaidza-kontua

Emaidza arrunten kontua

(Eurotan)

Zor		Hartzeko	
125.209	Langile-gastuak	Diru-sarrera finantzarioak	34
143.732	Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak	365.279
4.272	Amortizazioa 2014	Ibilgeturako diru-laguntzen emaitzei egozpena	4.272
96.372	Aurrezkia (emaitza positiboa)		
369.585	Guztira	Guztira	369.585

I.5. Eskudiru-fluxuen egoera-orria

	(Zenbatekoak, eurotan)	
	2013	2014
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak	268.689,22	242.210,79
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	268.550,00	242.177,22
Kobratutako interesak eta dibidenduak	139,00	33,57
Beste kobrantza batzuk	0,00	0,00
B) Ordainketak:	-148.091,18	-138.255,07
Hornidurak	42.141,29	41.997,48
Bertaratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	92.454,79	83.491,11
Bestelako kudeaketa-gastuak	13.495,10	12.766,48
Ordaindutako interesak	0,00	0,00
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A+B)	120.598,04	103.955,72
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	0,00	0,00
Inbertsio errealen salmenta	0,00	0,00
Finantza-aktiboen salmenta	0,00	0,00
D) Ordainketak:	0,00	-4.364,47
Inbertsio errealen erosketak	0,00	4.364,47
Finantza-aktiboen erosketak	0,00	0,00
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C+D)	0,00	-4.364,47
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondarean izandako gehikuntzak	0,00	0,00
Ondareari egindako ekarpenak	0,00	0,00
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-77.188,79	-120.598,04
Ekarpenen itzulketa eta emaitzen banaketa	77.188,79	120.598,04
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak	-77.188,79	-120.598,04
VII. ESKUDIRUAREN HANDITZE/GUTXITZE GARBIA		
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	77.188,79	120.598,04
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	120.598,04	99.590,47

I.6. Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria

	(Eurotan)		
	Ekarrirako ondarea aportado	Sortutako ondarea generado	Guztira
Amaierako ondare garbia, 2013	10.187	113.783	123.970
Ekitaldiko aldeak	92	-17.411	-17.319
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		96.372	
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	92	-113.783	
Amaierako ondare garbia, 2014	10.279	96.372	106.651

II. NAFARROAKO KONTSEILUAREN AURREKONTU-GASTUAREN BILAKAERA 2001-2014 EPEAN (EURO KONSTANTETAN)

Gastuak (euro konstantetan)	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Langile-gastuak	84.790	125.928	128.508	129.683	132.739	138.160	137.836	136.971	137.716	129.546	132.922	122.288	127.553	125.209
1. kapituluak. Langile gastuak	84.790	125.928	128.508	129.683	132.739	138.160	137.836	136.971	137.716	129.546	132.922	122.288	127.553	125.209
Konponketak, mantentze-lanak eta zain-tza	0	54	510	889	1.094	795	712	4.100	8.812	294	974	1.194	759	170
Materialia, hornidurak eta bestie	10.251	10.010	23.234	34.688	50.961	37.902	35.483	41.883	39.967	108.321	57.064	47.536	32.070	31.143
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordaina	125.901	180.309	183.436	125.245	156.128	137.546	135.210	155.208	153.993	175.917	128.651	131.335	112.928	104.432
Argitalpen-gastuak	673	10.443	40.935	21.138	19.742	21.832	22.744	18.229	18.127	18.047	18.147	12.573	7.890	7.986
2. kap. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	136.825	200.816	248.115	181.959	227.924	198.075	194.149	219.420	220.900	302.580	204.836	192.637	153.047	143.731
Inbertsio errealak	11.848	24.988	59.076	8.595	11.106	10.341	0	1.390	26.460	1.312	7.487	4.577	0	4.364
6. kap. Inbertsio errealak	11.848	11.605	59.076	8.595	11.106	10.341	0	1.390	26.460	1.312	7.487	4.577	0	4.364
Guztira	233.464	338.349	435.699	320.237	371.770	346.576	331.985	358.731	385.079	433.437	345.245	319.502	280.600	273.305

III. NAFARROAKO KONTSEILUAREN JARDUERAREN BILAKAERA 2000-2014 ALDIAN

Gaia	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira
en Hobekuntzaren aldekata	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	2
Legegintzako Foru Dekretu proiektua	0	0	3	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	4
Konstituzio kontraktotasun errekurtsioak jarzteak	1	1	1	0	2	1	0	2	0	0	2	0	5	2	2	19
Hitzarmen Ekonomikotik eratorritako erregelamendu proiektuak	3	8	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	11
Nafarroaren lankideitza hitzarmen eta akordioak	20	31	1	5	2	4	1	0	5	0	1	0	0	0	0	70
Legeak edo hain aldatetarik beteazterako erregelamendu proiektuak	18	14	36	45	20	30	21	18	25	20	32	24	18	23	20	364
Akordioak, judizialak zein judiziotik kanpokoak	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Berrikuspen-errekurtsio administratiboak	5	0	9	3	2	6	1	0	0	3	3	3	1	1	1	38
120.202.42 euro baino gehiagoko kalte-ordainen erreklamazioak	3	3	9	8	7	6	5	11	8	10	8	8	10	7	8	111
Administrazio-egintzak ofizioz berrikustea	1	5	13	5	4	6	8	5	7	9	5	7	12	5	3	95
Udal derbioak aldatzeko espedienteak	0	0	0	2	5	2	0	1	1	2	0	1	0	0	1	15
Administrazio-kontratu eta -hitzarmen interpretazio, deuseztatuna edo iraungipena, kontratista aurka agertzen delarik	3	5	3	1	1	2	3	1	4	2	3	0	3	2	2	35
Bestelako gaiak	3	2	5	4	2	4	3	2	0	3	6	1	0	5	2	42
Guztira	58	69	80	74	45	61	42	40	51	49	61	44	49	45	39	807

Iturria: 2014ko jarduerari buruzko oroitidazkia. Nafarroako Kontseilua.

Uztaila eta abuztua gaitzeko erabakia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko ekainaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 72. artikuluekin bat, aurtengo uztaila eta abuztua gaitzea, uztailaren 6tik 14ra bitarteko egunak izan ezik, beharrezko parlamentu-bilera eta -jarduera egite aldera, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren inbestidura prozesua burutu arte.

2. Erregelamenduaren 174. artikuluan aurreikusitako epea, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaritzarako hautagaia proposatzekoa, hamar egun baliodun gehiago luzatzea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko ekainaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznarez Igarza
